



## **C. TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGILUEN GAINEN ZERGA ARAUPETZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA.**

### **I. XEDAPEN NAGUSIAK.**

#### **1. artikulua.**

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen duen Foru Arauan eta tributuaren Foru Arau partikularrean ezarritakoaren arabera Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga eskatzen du honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera bertan azaltzen baitira aplikatu beharreko tarifak.

#### **2. artikulua.**

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGA EGITATEA.**

#### **3. artikulua.**

Hauexek dira Zergaren zerga-egitateak:

1. Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.
2. Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatu dena, baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo-matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.
3. Zerga honetatik kanpo geratuko dira modelo oso zaharra delako erregistroetan baja eman arren, salbuespen gisa, ibiltzeko baimena izan dezaketan ibilgailuak, erakustaldietan eta gisa horretako lehiaketetan edo lasterketetan parte hartzeko.

### **III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.**

#### **4. artikulua.**

1. Zergatik salbuetsita egongo dira:

- a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki-erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.
- b) Atzerriko herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, eta kreditatuta dauden agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.  
Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionarioak edo kideenak.
- c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.
- d) Osasun-laguntza ematera zuzenean bideratutako anbulantziak eta gainerako ibilgailuak (Gurutze Gorriarenak edo erregelamenduz zehaztutako antzeko erakundeenak).
- e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak.

Halaber, salbuesita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, soilik ezinduak erabiltzeko direnak. Salbuespena inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, urrituek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.

Aurreko bi lerroaldeetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondoriotarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

- a') Ehuneko 33 eta 65 arteko minusbaliotasuna aitortu zaien pertsonak, mugigarritasun murriztuko egoeran daudenak. Egoera horiek izango dira, minusbaliotasun-maila aitortu, deklaratu edota kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. Eranskinean agertzen den baremoko A, B edo C letretan jasotakoak, edota aipatu baremoaren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak.

- b') Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun-maila duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III.eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

3/2009 Foru Araua indarrean sartu baino lehen 7/1989 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoak, 1.atalaren e) hizkian zuen idazkera aplikatuz Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaz salbuesiak zeuden ibilgailuek berriz ere salbuespena eskatu beharko dute, betiere Udalaren aurrean arestian aipatutako artikuluari emandako idazkera berriak sartuak dauden baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez badute. Eskari hori gertatzen ez bada, udalak gaitasuna izango du ordura arte dauden espediente guztiak ofizioz berrikusteko.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak; ez du atzera eraginik. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga- zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

f) Garraio publikoko zerbitzuan izen-emandako edo horretara bideratutako autobusak. Zerga ezartzen duen udalak emango du administrazio-baimen hori.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

Artikulu honetako 1. ataleko e) eta g) hizkietan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

Horrez gain, aurreko paragrafoko e) idatz-zatiaren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenean, interesatuak minusbaliotasun, organo eskudunak emandakoa, edo mugikortasun urritasunaren egoeraren egiaztagiria aurkeztu beharko du eta orobat, ibilgailuaren helburua justifikatu beharko du dagokion udalean, zirkulazio baimenaren fotokopiarekin batera.

## 2. Hobariak.

2. a. Ibilgailu historikoei edo 25 urteko gutxieneko antzinatasuna izanda ibilgailu klasikoak edo antzinakoak zabaltzea eta sustatzea helburu daukan elkarte bateko kideak diren ibilgailuei %100eko hobaria egingo zaie zergaren kuotan. Horrez gain, elkarte horretan bertan inskribatuta egon beharko da ibilgailu hori.



Hobari hori lortzeko, ibilgailuen titularrek esleipena bera eskatu beharko dute. Horretarako, gainera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- NANaren edo AIZaren fotokopia.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia eta administrazio eskudunak egindako agiria, historikoa dela eta Ibilgailu Historikoen Erregistroan inskribatuta dagoela adierazteko.
- Ibilgailua legearen arabera eraturako ibilgailu antzinako/klasikoen elkarteko kidea dela adierazten duen ziurtagiri originala. Izan ere, eguneratu egin beharko denez, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

2. b. Ekoitzi zireneko datatik hasita hogeita bost urteko gutxieneko antzintasuna duten ibilgailuei %50eko hobaria egingo zaie zergaren kuotan. Ekoizpen-data ezezaguna bada, lehenengo matrikulazioaren data hartuko da kontuan; edo, besterik ezean, mota edo aldagai hori egiteari utzitako data.

2. c. Motor hibridodun ibilgailuei eta erregai moduan gasa darabiltenei (esate baterako, gas naturala, petrolio-gas likidotua edo bioetanola) %50eko hobaria egingo zaie zergaren kuotan.

2. d. Motor elektrikodun ibilgailuei %75eko hobaria egingo zaie zergaren kuotan.

Aurrean adierazitako hobariak erregutuak direnez, egiaztatu egin beharko da ibilgailuak eskatutako ezaugarriak betetzen dituela. Horretarako, ezaugarri teknikoek txartela aurkeztu beharko da; edo, bertan agertzen ez badira, administrazio eskudunak horren berri emateko egindako agiria.

Hobari horiek ibilgailuaren matrikulazioari dagokion zergaldian izango dituzte ondorioak, eskabidea bera zergaren autolikidazioa egiten denean aurkezten bada. Eskabidea ibilgailua matrikulatu ondoren aurkezten bada, ordea, aitortu osteko hurrengo epealdian izango dituzte ondorioak.

Ibilgailuak lehen zehaztutako hobarietako bat bakarrik jaso ahal izango du, eta, ezarri ahal izateko, subjektu onuradunak egunean eduki beharko du udalarekin dauzkan zerga-betebeharren eta zerga-arlokoak ez direnen ordainketa, hobariaren helburua izango den kuota sortzen denean.

2. e. Zergaren kuotaren gaineko hobaria egingo zaie 5 leku edo gehiago dituen turismo-ibilgailu bakar baten alde, betiere, familiako kideren baten titularitatepean badago, familia hori ugaria denean. Horretarako, honako eskala hau hartuko da kontuan, familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren arabera.

Seme- alaben kop.	Hileko soldata-maila, lanbide arteko gutxieneko soldataren aldean						
	LGS edo <	LGS + %10	LGS + %20	LGS + %30	LGS + %40	LGS + %50	LGS + %60
3	%90	%90	%75	%50	%25	-	-
4	%95	%90	%90	%75	%50	%25	-
5	%95	%90	%90	%90	%75	%50	%25
6	%95	%90	%90	%90	%90	%75	%50
7 ...	%95	%90	%90	%90	%90	%90	%75

Subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du hobaria hobari-eskabidearen helburu den zergaldian, eta, horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Zergaren ordainagiriaren fotokopia.
- Indarreko legeriaren arabera indarrean dagoen eta Bizkaiko Foru Aldundiak eman duen familia ugariaren titulua. Izan ere, gutxienez, hobari-eskabidearen helburu den urteko lehenengo egunera arte eduki beharko du baliotasuna.
- Familia-unitatearen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpena edo errenta-aitortpenik aurkeztu behar ez duela adierazten duen ziurtagiria.
- Kanpoko zeinuen eta bizibideen ziurtagiria.

#### IV. SUBJEKTU PASIBOA.

##### 5. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

#### V. KUOTAK.

##### 6. artikulua.-

Eranskinean adierazitako tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.

Kuoten taula Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren bidez aldatu ahal izango da.

Ibilgailu-moten kontzeptua arauz zehaztuko da, baita tarifak ezartzeko arauak ere.

Udalak artikuluko honetako 1. idatz-zatian zehaztutako kuotak gehitu ahal izango ditu. Horretarako, gehienez ere 3koa den koefizientea ezarriko du bertan.

Aurreko eranskinean adierazitako tarifen taulan aurreikusitako ibilgailu-mota bakoitzerako koefizientea zehaztu ahal izango du udalak. Aldi berean, gainera, desberdina izan ahalko da ibilgailu-mota bakoitzean zehaztutako tarte bakoitzerako, eta ez du inolaz ere aurreko paragrafoan aipatutako gehienezko muga gaindituko.

2. Nolako ibilgailua den zehazteko, arauz xedatutakoa hartuko da kontuan, eta, ordezkarritasunez, honako arau hauexek ere bai:



a) "Ibilgailu mistoak" eta "ibilgailu misto egokigarriak" zergapetzean, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Horrelako ibilgailuak Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartelean adierazitakoaren arabera sailkatuko dira.

- Ibilgailu mistoa eta ibilgailu misto egokigarria kamioi moduan zergapetuko dira, betiere ibilgailuak 525 kiloko gehienezko zama erabilgarria garraiatzeko baimenik ez badauka. Halakoetan, hain zuzen ere, turismo moduan zergapetuko dira zaldi fiskalen arabera.

b) "Lur orotarako" ibilgailuak, Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartelean halaxe adierazten denean, turismo moduan zergapetuko dira zaldi fiskalen arabera.

c) Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartelean furgoneta edo furgoneta misto moduan sailkatutako ibilgailuak kamioi moduan zergapetuko dira, honako kasu hauetan izan ezik:

- Gidaria kontuan hartuta, ibilgailua bederatzi lagun baino gehiago garraiatzeko atonduta badago, autobus moduan zergapetuko da.

- Ibilgailuak 525 kiloko gehienezko zama erabilgarria garraiatzeko baimenik badauka, turismo moduan zergapetuko da.

d) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko direnez, euren zilindradaren ahalmenaren arabera zergapetuko dira.

e) Ibilgailuak artikulatuak direnean, arraste-potentzia daramana, atoiak eta erdiatoiak aldi berean eta aparte zergapetuko dira.

f) Ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak euren ahalmenagatik matrikulatu behar ez badira, zirkulaziorako egokiak izango dira, Industria Ordezkaritzak kasuan kasuko ziurtagiria egiten duenetik edo, hala badagokio, zirkulazioan benetan daudenetik.

g) Trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek garraiatu edo herrestan eraman gabe bide publikoetatik dabilzan makina autopropultsatuak traktoreei dagozkien tarifen arabera zergatuko dira.

h) Zerga honen ondorioetarako, autokarabanak turismotzat hartuko direnez, zaldi fiskalen arabera zergapetuko dira

## **VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

### **7. artikulua.**

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere, horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da, edo ibilgailuari Trafiko Burutzan baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

3. Ibilgailuen lehen eskuraketa denean, edo haien bajaren kasuan ere, kuotaren zenbatekoa erosketa dataren eta urte horretako abenduaren 31ren artekoaren arabera hainbanatuko da, alta edo baja gertatzen den datari dagokiona barne.
4. Ibilgailua ostu edo lapurtuz gero behin betiko edo aldi baterako baja hartuz gero, hilabete naturalen arabera hainbanatuko da kuota, eta subjektu pasiboak ordainagiria ordaindu beharko du oso-osorik. Nolanahi ere, kontsumitu ez duen zatia itzultzeko eskatu ahal izango du geroago.

## VII. KUDEAKETA

### 8. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

### 9. artikulua.

Udalak auto-likidazio -arabidean eskatu ahal izango du zerga hori.

### 10. artikulua.

Zerga ordaindu delako frogagiria Udal Administrazioak edo diru-bilketarako erakunde laguntzaileak emandako ordainagiria izango da, honek zigilua behar bezala ipinita edukitzeaz gain, ordainketa egin den eguna jasota eduki beharko du.

Inprimaki sorta ez jasotzek ez du salbuesten zerga ordaindu beharretik.

### 11. artikulua.

1. Ibilgailu matrikulatuak edo zirkulatzeko gaitzat hartu diren ibilgailuak direnean zergaren ordainketa ekitaldi bakoitzeko lehenengo seihilekoaren barruan egingo da, datorren artikulua aipatzen dituen kasuetan izan ezik, hauetan artikulua horrek arautzen duena bete behar baita. Edonola ere, borondateko epean zerga ordaintzeko Alkateak edo honek eskuordetzen duenak erabakitako epealdia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta Udaletxeko iragarki taulan behar bezala argitaratu beharko da.

2. Kuota egokien zerga-bilketa urteko errola sistemaren bitartez egingo da, bertan jasota geratu beharko dira zerga hau ordaindu behar duten ibilgailu guztiak, baldin eta dagokien erregistro publikoan inskribaturik badaude udalerrri honetan erroldatuta dauden pertsona edo entitateen izenean.

Zergaren errola jendaurrera ikusgai azalduko da hamabost laneguneko epean, lege-bidezko interesatuek aztertu, eta, hala dagokionean, erreklamazio egokiak auzeratu ditzaten. Aipatutako agerraldia iragarriko da «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta hiritarren artean hedapenik gehiena izan dezan komeniesten diren bideetan, eta honek jakinarazpen kolektiboaren ondoreak sortaraziko ditu.

### 12. artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenean, alde aurretik Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute.

2. Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoretarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.

3. Trafiko-buruzagitzari ez dute ibilgailuen bajari edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko alde aurretik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

### 13. artikulua.

Matrikulazio berrietan, edo ibilgailuari egindako aldaketek zerga- ondoretarako kalifikazioa aldatzen dutenean, interesatuek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote Udal Administrazioari, Zergaren matrikulari eransteke, 30 eguneko epean, matrikulazioa edo aldaketa egiten den egunetik hasita:

- Zirkulazioko baimena.
- Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- NAN edo IFK.

### VIII. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, 2012ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du bere aldaketa edo indargabetzea erabakitzen den arte.

### ERANSKINA.

#### Urteko tarifa:

#### **Potentzia eta ibilgailu mota Kuota (e).**

##### A) Turismoak:

8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak.....	21,45
8 eta 11,99 zaldi fiskal artekoak.....	61,68
12 eta 13,99 zaldi fiskal artekoak.....	129,22
14 eta 15,99 zaldi fiskal artekoak.....	185,11
16 eta 19,99 zaldi fiskal artekoak.....	243,41
20 zaldi fiskaletik gorakoak.....	330,55

##### B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak.....	150,77
21 eta 50 plaza artekoak.....	213,55
50 plazatik aurrerakoak.....	263,97

##### C) Kamioiak:

Zama erabilgarriko 1.000 kg baino gutxiagokoak.....	76,53
---	-------

1.000 eta 2.999 kg arteko zamakoak.....	150,77
3.000 eta 9.999 kg arteko zamakoak.....	214,74
9.999 kg-tik aurrerako zama erabilgarrikoak.....	266,94

D) Traktoreak:

16 c fiskaletik beherakoak.....	32,51
16 eta 25 c fiskal artekoak.....	64,70
25 c-tik gorakoak.....	150,77

E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdi-atoiak:

1.000 kg-tik beherako zama.....	32,51
1.000 eta 2.999 kg arteko zamakoak.....	64,70
2.999 kg-tik aurrerako zama erabilgarrikoak.....	150,77

F) Beste era bateko ibilgailuak:

Ziklomotorrak, kabinadun trizikloak eta kuadrizikloak.....	9,50
125 cc-rainoko motozikletak.....	9,50
125 eta 250 cc arteko motozikletak.....	16,88
250 eta 500 cc arteko motozikletak.....	37,88
500 eta 1.000 cc arteko motozikletak.....	75,72
1.000 cc-tik aurrerako motozikletak.....	151,45